

## MANUEL LEKUONAREN METODOLOGIA AHOZKO LITERATURAREN IKERKETAN

Oiartzun, 94-12-29

Juan Mari Lekuona

Euskal literaturaz dihardutenen artean, nahiko onartua dena da, Manuel Lekuonaren liburua, *Literatura oral vasca* deritzana (1), liburu klasikoa dela herri-literaturari buruzko ikaslanetan. Eta nahiko aitortua ere bada, Manuel Lekuona euskal oralisten aitzindaria dela, ikerkuntza teorikoen mailan batez ere, eta ez hainbeste, behar bada, materiale bilketan.

Onarpen eta aitopen hauek hala izan badira, Manuel Lekuonak ahozko-tasanari eman dion tratamenduagatik da, eta, besteak beste, ahozko literaturan erabili duen metodologiagatik. Hirurogei urteren buruan bere balioari eusten badio idazlanak, eta oraindik ere goien mailako aipamena jasotzen badu, honek adierazten digu, autorearen dohaiez eta prestakuntzez baino harantzagoko zerbait badutela idazlanek: hain zuzen, eta besteak beste, mintzaldi honen aztergaia: Manuel Lekuonak ahozko estiloari buruz erabili zuen metodologia egokia, berarizkoa, zehatza eta zientifikoa ere bai, neurri eder batean.

Oraindik ere gaurkotasunik galdu ez badu, honek esan nahi du asmatu zuela gaiaren kontestua finkatzerakoan, materialeak deskribatzerakoan, sailkapenak egiterakoan, teorizazioa eskaintzerakoan, ezaugarri nagusiak ipintzerakoan, beste medio etnikoekin konparaketak egiterakoan eta abarretan.

Liburuaren klasikotasunari eta autorearen aitzindaritasunari atxekiz, hitzaldi honen asmoa da hain eragin oneko metodologia hori gehiago agertaraztea eta sakontzea, autoreak eginiko lanen asmoak agertuz, emandako urratsak historikoki finkatuz, hango eta hemengo eraginak jasoz, campus-lanak bezala teorizazioak ere aipatuz.

Hau guztia laguntza ona dela uste dugu Jardunaldi hauei hasiera emateko, eta dei bat ere bai gutxienez, Manuel Lekuonak ahozkotasanaz eginiko lana kontuan hartzeko, eta gerora datozkeen ikerketak ahalik eta egokien bideratzeko, gure gaurko ikuspegitik gaiari begiratuz.

---

(1) M. LEKUONA: *Literatura oral vasca*, "Idaz-Lan Guztiak", 1 t., 'Kardaberaz bilduma - 22', Gráficas ESET, Gasteiz/Vitoria, 1978, 279-540 or.

## I. IKERKETEN BILAKABIDEA

Lanen kronologiari begiratzuz, hiru aro bereizi daitezke Manuel Lekuonak ahozkotasanari begira eginiko ikerketetan: 1) Lehen ikerketak (1918-1930); 2) Formulazio urteak (1930-1935); eta 3) Gerrondoko saiakerak (1955-1970) (gutxi gorabehera) (2).

### 1. Lehen ikerketak (1918-1930)

Ikuspegi zabalak aurkeztu baino lehenagoko lan monografikoak dira, metodologia bat markatzen hasten direnak, eta geroko ikuspegi primiziak ematen dituztenak. Lau idazlan bereziko ditugu: 1) *La métrica vasca* (1918) (3), ikasturte hasierako diskurtsua Gasteizko Seminarioan; 2) *Anuario-ko* lehen artikulua (4); 3) “Genoveva de Brabante por el bertsolari J.K. Zapirain” (1929) (5) “Laboratorio de Eusko Folklore-k argitaratua”; eta 4) “Cantares populares recogidos por Manuel de Lecuona”, “Anuario de Eusko Folklore”, 1930ean (6).

#### a) *La métrica vasca* (1918)

Lau lan hauetatik lehenengoa, behar bada berezietakoa dela esan behar, autoreak 24 urte zituela egina eta laugarren kurtsua zeramalarik irakasle bezala. Horregatik edo, oraindik seminarioko formazio otina gehisko nabarmentzen edo zaio mintzaldi akademikoan, hala nola grekerazko eta latinezko klasikoen aipamen jarraikia, testu ezagunak eta ohikoak erabili izana eta ikaslanaren helburu apologetiko-programatikoa eta abar. Hala ere, hasieratik ikusten zaio testuak irakurtzeko duen trebezia eta zehaztasuna, iadanik agertzen duelarik, hain berea duen dohaia, bere gaitasun analitikoa.

*La métrica vasca* izeneko ikaslan honi jarraituko dio Manuel Lekuonak gerora egingo dituen metrikari buruzko idazkietan. Aipa daitezke hemen RIEV-eko, “Euskalerrriaren alde”-ko eta gerora liburuan aurkeztuko dituen gaie-tan (7).

(2) J.M. LEKUONA: *Manuel Lekuona Etxabeguren*, “Manuel Lekuona Saria”, 1. z., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.

(3) M. LEKUONA: *La métrica vasca*, “Montepío Diocesano”, Vitoria, 1918. ‘Idaz-Lan Guztiak’, 1, 131-157. or.

(4) M. LEKUONA: “Lenguaje infantil”, *Anuario Eusko-Folklore*, 1 (1921), 31-37 or., Idaz-Lan Guztiak, 2 t., 569-575. or.

(5) Id.: *Genoveva de Bravante, por el ‘bertsolari’ Juan Cruz Zapirain*, ‘Trabajos del Laboratorio de Eusko-Folklore’, Vitoria, 1929, III-XII. or.

(6) Id.: ‘Cantares populares’, *Anuario Eusko-Folklore*, ‘10’ (1930), 35-80. or., Idaz-Lan Guztiak, 1t, 492-540. or.

(7) Ikus 2). oharreko idazkian datorren bibliografia.



*Ezkerretik eskubira:* Jose Antonio Arana Martija, Endrike Knörr, Jean Hartschelhar, Jon Iñarra eta Juan Mari Lekuona

Metodologiaren aldetik besterik da 1921etik aurrerako lanetan. “Eusko-Folklore Elkarte” sortzen da, bere hileroko ikerketa-orriak eta bere “Anuario”-a dituela (8). Eta esan dezakegu, aldi berri baten hasierak direla Manuel Lekuonaren ikerkuntzetan. “La Sociedad de Eusko-Folklore” eraiki zenean 1921ean, Zuzendaritza osatzen zutenen kideen zerrendan, Don Jose Migele-naren ondotik, bigarren lekuan dator Manuel Lekuonaren izena (9).

b) *Anuario*-ko lehen lanak (1921)

*Anuario*-ko lehenengo zenbakian azaltzen diren aurreneko bi idazlanetan, “Lenguaje infantil” eta “Lenguaje empleado con los animales domésticos” (10), gai hauei buruz eginiko inkesten emaitzak argitaratzen dira. Bi lan hauek ikaskuntza bana daramate azkenean, Manuel Lekuonak eginak hain zuzen. Arreta biztu digu “Lenguaje infantil” izeneko ikaslanak, lehenengo ohar-kizunak agertzen dituenek, hitzak estilizatzeko umeek erabili ohi dituzten prozedurei buruzkoak, prozedurok gerora Manuel Lekuonak garatuko dituelarik dekorazio-olerkiak mintzatzen zaigunean. Garbi dago *Eusko-Folklore*-ko metodologia erabili ezezik, arduradun ere badela ikerketa honetan eginiko lanen erantzukizunean.

(8) J.M. BARANDIARAN: ‘Nuestro empeño’, *Anuario Eusko-Folklore*, 1 (1921), 4 or. Ikus bertako 7-9. orrialdeak ere.

(9) *Ibid.*, 7 or.

(10) M. LEKUONA: ‘Lenguaje infantil’ eta ‘Lenguaje empleado con los animales domésticos’, *Anuario Eusko-Folklore*, 1 (1921), 31-42. or.

c) “*Genoveva de Brabante*” (1929)

Antzeko zerbait esan beharra dago beste bi lanei buruz ere. Bata, “Genoveva de Brabante, por el bertsolari Juan Cruz Zapirain”, in *Trabajos de Eusko-Folklore*, Gasteiz, 1929an. Poema luze honi Manuel Lekuonak jarri zion aintzin-solasean aurkezten da lehen aldikotz, Manuelek bertsolaritzari buruz duen ikuspegia. Hala dio Lino Akesolok: “or asi da Lekuona bertsolaritzaz bere leen argibideak ematen” (11). Formulazio garaia datorkionerako, baditu hemen aurreratutako hainbat gai, agian Marcel Jousse-n haritik (12). Eta aipatzen da, poema honen argitan, nola hobeto uler daitekeen poema nazional handien sorrera. Aita Estefaniak ere, *Razón y Fe* aldizkarian ideia bera aldarrikatzen du (13), Errenteriako bertsolariaren lanaz bere erreseina ematen duenean.

d) *Cantares populares* bilduma (1930)

Eta *Eusko-Folklore*-ko inkestei erantzunez, 1930ean, “Cantares populares recogidos por Manuel Lecuona”, 35-80 orrialdeak. “Campus”-lana ispilatzen dute, bilduma bizia. Atal nagusiak hauek dira: 1) Cantares coreográficos; 2) Cunerak; 3) Didácticas; 4) Juegos infantiles; 5) Para las festividades; 6) Varios; 7) Burlas; 8) Lenguaje de las campanas (14). Pieza txikiak dira, ahozketasuna erakusteko adibide ezinhobeak.

Manuel Lekuonaren idazlan hauetan ikus daitekeenez, 1918ko ikasturte hasierako diskurtsua salbu, 1921etik aurrera erabat loturik agertzen zaigu *Eusko Folklore*-ko metodologiarekin. Oraindik gai puntualez bakarrik ikertzen badu ere, gauza jakina da bere metodologia, gero aberastuko duena, batez ere teorizazioari buruzko puntuetan. Ikerketa batzuen ondorioak biltzeko eta zehazteko dira, edo materiale apartekoen aurkezpena eta irakatsia markatzeko, edo bildumaren emaitzak argitaratzeko. Lan metodo jakin baten urrats garrantzitsuak adierazteko.

## 2. Formulazioaren lehen hurbilketa (1930)

Bi formulazio-aldi ditu Manuel Lekuonak ahozko literaturari buruz emaniko ikuspegi zabalak: bata, 1930ekoa, Eusko-Ikaskuntzaren Bosgarren Batza-

(11) L. AKESOLO: ‘Manuel Lekuona eta aozko euskal-literatura’, *Manuel Lekuonari Omenaldia*, Donostia 23-4-1982, ‘Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos’, 61 or. Egunari dakion liburuskak, 20. or.

(12) Ikus beherago 33. oharra. Bergarako konferentzian espreski aipatzen du Manuelek Marcel Jousse-n lana. Brabanteko Jenobebarena 1929koa da eta litekeena da antropologo frantsesaren liburua ordurako ezagutzea, baina ez dugu zehaztasunik hori baiezteko.

(13) J.M. ESTEFANIA: Lekuona, Manuel de, ‘Literatura oral euskéria’, *Razón y Fe*, 36 (1936), 128. or.

(14) M. LEKUONA: ‘Cantares populares...’; ‘Idaz-Lan Guztiak’, I t., 492-540. or.

rrean, Bergaran hitzaldi modura emana (15); eta bigarrena, *Literatura oral euskérica* izeneko liburua, 1935ean egina (16). Hitzaldia lehen hurbilketa bat izan zen, uneak eskatzen zuen modukoa; eta liburuaren iragarkia ezezik, eskakizun bat ere izan zen, gero idatzi beharreko lan luzeago baten primizia eta lehen-fruitua.

Bergarako Udaletxean irakurritako hitzaldiak hau zuen izenburu: “La poesía popular vasca”, “Euskarazko herri-olerkia”, mugaketa garrantzitsua ezarri gaiarekiko. Ez zen ahozko literatura bere osoan hartua, poesiarantz mugatua baizik. Sarrera erabat apologetikoa du, folklorea, herri-kulturaz estimu handia ekartzen duen baten jarrera bindikatiboa. Eta sartzen da herriko gauzak, eta herri-poesia ere bai, mesprezatzeko dituztenekin; eta herri-kantuen zenbait argitalpenekin. Eta aipatzen du nola badiren desilusio handiz poesia herrikoiaz hitzegiten dutenak, baina musikarekin zoraturik daudenak (17). Eta gogoratzen ditu herri-kantuen mordoilokeriak hiztegiaren aldetik, baina garbi utziz hiztegia ez dela irizpide literaturen edertasuna dastatzeko (18).

Berak aurkeztuko duen poesiak hausten ditu poesia klasikoaren arauak. Baina puntu honetan iritziak markatzeko, gustua da irizpidea. Eta herriak gogoko du horrelako poesigintza ez-kultua. Eta ikertzaileak oso kontuan eduki beharko ditu klasikoaren arrazoizotasuna eta herriaren irudipena. Eta gauzak mugatuko ditu, arrazoizko logikaren gainetik zentzuek eginiko kontzeptuen loturek duten garrantzia azpimarratuz. “La imaginación, por el contrario, une sus visiones e impresiones mediante enlaces y relaciones de un orden puramente sensitivo” (19). Eta poeta aristotelikoak onar ez dezakeen zerbait, gerta daiteke edertasun bikaineko poema izatea herriarentzat.

Mintzaldiak hiru parte ditu, eta ordena honetan aurkeztuak: 1) Dekorazio-olerkia; 2) Kopla zaharrak; 3) Bertsolaria.

#### a) Dekorazio-olerkia

Gaiari dagokion tratamendua emateko, metodo etno-estetikoa darabilkiela dirudi. Etno-ikerketen bidez, ordurako argitaratua zuen bere *Cantos populares* bilduma; eta Bergarako mintzalditik hiru urtera argitaratu zuen *Yakintza*-n, lan-txo bat, non, beste azterketen artean, antologia bat argitaratzen baita, dekorazio-olerkiko altxor hornituagoa aurkeztuz, “Las canciones infantiles” deritzana (20).

(15) M. LEKUONA: ‘La poesía popular vasca’, Eusko-ikaskuntzaren Bosgarren Batzarra, ‘Euskal Artegintzari buruzkoa’, Bergara, 1930. Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 197-257. or.

(16) Id.: *Literatura oral euskérica*, ‘Zabalkundea Sorta’, ‘Euskaltzaleak’, Donostia, 1936.

(17) Id.: ‘La poesía popular vasca’, Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 187. or.

(18) Id., ibid.

(19) Id., ibid., 189 or.

(20) Id.: ‘Las canciones infantiles’, *Yakintza*, 1 (1933), 136. or. Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 614. or.

Bestalde, azterketa estetikoek eraman zuten poesi mota honek pintura eta eskultura dekoratiboekin duen antzekotasuna ikusaraztera, izena bera ere hain estetika girokoa gertatuz. Eta asmatu zuen metodo bat, poesi mota honen xehetasunak deskribatu, ulertu eta aurkeztu ahal izateko. Etorkizunean gai berari buruz egingo dituen ikerlanetan gutxi aurreratuko du Bergaran emanikotik. Behar bada azterbideak aurkezterakoan egiten du aurrekada Oiartzungo azken urteetan, umeen hizkuntzari buruz Gasteizen lehen artikulua hartan esanikoa zuzenago gai honi aplikatuz (21).

#### b) Kopla zaharrak (Kantu zaharrak)

Hemen ere aurreko puntuan esaniko zenbait ideia gogoratu beharra dago. Alegia, ordurako egina zuela antologia bere bilketa pertsonaletan. Baina gehiago oraindik. Manuel Lekuonak altxor aberatsa aurkitu zuen *Gure Herria* aldizkarian, hain zuzen ere, supplément (eranskin musikala) argitaratzen hasi zenean (22). Osaba aldizkariaren harpidedun zen. Eta eranskin musikalak argitaratzen hasi zirenetik, 1924tik 1929rainokoak bildu eta enkuadernatu egin zituen. Eta bilduma horretan ikusten da, nola kantu zaharren irudi guztiak gorriz azpimarratzen zituen, zinez irudien altxor aberatsa atereaz, ikerlariaren oinarri-datuen sendogarri nahiko zabala.

Lehenengo bi bertso-lerroak eginik omen daude

“a modo de marco pintoresco, en que se encuadra el asunto del cantar, sin que al parecer tenga nada que ver con él” (23).

Baina hau ere dio:

“no es absolutamente incoherente para con el asunto de la copla, sino que guarda con él estrechísima relación, en cuya percepción estriba, precisamente, mucho de la gracia estética del cantar” (24).

Berrito iritzi etno-estetikoak erabiltzen ditu, lotura akustikoa baizik ez duten koplak badaudela aipatzeraino.

Estetika aldetik berea aitortuko dio klasikoari baina iadanik hasten da aipatzen azken orduko abanguardia, arrazoiaz eta logikaz gain, beste prozedura lotutzaileak onartuko dituen, irudien enpleguan. Baina puntu hau zehatzago eta ugariago aipatuko digu gerrondoko saiakeretan, hala nola, “Problemas que plantea la Literatura oral vasca” (Deustuko Unibertsitatea, 1967an) (25), eta

(21) Id.: ‘La canción infantil’, Idaz-Lan Guztiak, 9 t., 23-40. or.

(22) *Gure Herria*, 1924tik 1929ra arteko “Supplément musical” eranskinak bildu eta enkuadernaturik dauzka, 338. orrialde.

(23) Id.: ‘La poesía popular vasca’, Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 206. or.

(24) Id., ibid., 203. or.

(25) Id., ibid., 541-567. or.

“La psicología vasca a la luz de la poesía popular” (I Semana de Antropología Vasca, 1970ean) (26). Baina bi hitzaldi hauetaz geroago beste ataltxo bat ideki beharko dugu.

### c) Bertsolariak

Dekorazio-olerkiaren eta koplazaharren aurkezpenean, aldaketa hain nabariak ez daude Bergarako konferentziatik liburura. Ez hala, ordea, bertsolariari dagozkionetan. Kokatzen du ahozko literaturaren barruan, literatura maila desberdina, baina estetika ezin-ukatua duena aitortzen diola ahozko literatura honi, eta preseski bertsolariari. Baina askoz gehiago du esateko geratzen zaiona, gero liburuan emango diguna, hain zuzen.

Kalifikaturik uzten du mintzaldian dioenaren maila:

“Por la brevedad del tiempo y por la extensión de la materia (y también por el carácter de mi conferencia, que, más bien que de estudio, tiende a ser de indicación de puntos de vista) en la obra del *bertsolari* no podré fijarme más que en algún puntito, y aun eso de paso, o a modo de ejemplo. Y tampoco podré del fenómeno del *bertsolarismo* decir todo cuanto quisiera” (27).

Gauza gehiago esan nahiean geratzen da. Aipatzen du estreinakoz Marcel Jousse-n liburua, beronetan apio hartuz aipatzen duela bat-bateko iardun poetikoa misio-lurretan eta Biblian. Eta nola gure herri-literaturan ematen diren ahozkotasunezko poesigintzaren fenomeno guztiak, batez ere bertsolarietan. Hala nola memoria azkarra, bat-batean aritzeko trebezia, pentsamentuzko mugikortasun eta arintasuna, gaia laburbiltzeko abilezia, poemari batasuna emanez, eta azkenik adibide zerrenda luzea, generoak zehaztu gabe baina eredu desberdinak aipatuz... Guzti hau garatuago ematea izango da liburuaren ekarrietako bat.

Mintzaldiak azkenean, hamabi testu poetiko daramatza. Oiarzungo campus-lanetan bilduak eskuarki. Berri-emaile oso kualifikatuak zituen: koplarietan Jose Manuel Lekuona, “Lexoti Zaharra” izan zuen iturri, eta berau Bergaran ere izan zen mintzaldiko adibideak kantatuz (28). Bertako koplazaharrak, toberak, Xenpelarren bertsoak, Kazkazurirenak, P.M. Otaño, J.K. Zapirain, Udarregi, Pello Errota biltzen ditu. Orduko Oiarzungo bertso-sorta memorizatua da izan, Lexotik lekukotu ziona Manuel Lekuonari.

(26) Id., *ibid.*, 569-597. or.

(27) Id., *ibid.*, 215. or.

(28) Id., *ibid.*, 200. or.

### 3. Formulazio erabatekoa (1935)

Ahozko literaturaz den Manuel Lekuonaren liburu klasikoak hiru argitalpen izan ditu, edizio batetik besterako aldega guzuzak ugariago aipatzean dagoelarik. Izenburuan aldaketa badago hasteko: *Literatura oral euskérica* lehenengoak, eta *Literatura oral vasca* hurrengo biek (29).

Mamiari atxekiz, poesiaz gain, beste bi alderdi berri daude, mintzaldian hain landuak ez zirenak; 1) Ahozkotasunari buruzko xehetasunak, honen ezauzgarriak finkatuz eta garatuz; 2) Poesiaz gain, gero eta literatura genero gehiago sartzea literatur azpisailetan, hala nola teatroan eta erromantzeetan. Eta testuetan ere aldaketa handia dago, batez ere hirugarren argitalpenean, 1930eko bilduma eta kardaberaztarren artxibotiko zenbait pieza gehitzen dituelarik (30).

Generoen ordena ere aldatu egiten du liburuan Bergarako mintzalditik, bertolaritzarekin hasiz, eta gertakari honi emanez autorearen ustez eman behar zaion luze-zabala. Edukiaren aldetiko aldeari begiratzen badiogu, badu liburuak bigarren argitalpenean gauza berririk, lehengo edizioan ez dakarrenik. Besteak beste, aipagarrienak: atariko kontuetan sartzen du, “Notas geográficas”-en ondoren, lehen ez zegoen “Notas etnográficas”, “Antigüedad del vasco y de su cultura en el País” (31) Andoainen idatzia. Eta beste osagarri berri bat ere bai, “Técnicas de la improvisación” deitzen den ataltxo (32), lehenengo argitalpenean ez zetorrena.

Metodologiaren aldetik, liburu honetan azpimarragarria da ahozkotasunari buruz Marcel Jousse-n teoriiez egiten duen erabilpena. Eta axaletik hasiz, zera dut esan beharra: Gasteizko Seminarioko bibliotekan aurkitu nuen osabak erabili zuen edizioa. Eta bertan aurkitu nuen, nola osabak, bere ohiturari eutsiz, lapitza gorritz azpimarratu zituela han eta hemen —arin xamar, hori bai— hainbat lerro eta perpausa, guk erabakigarri jotzen ditugunak. Era askotako gaiak daude azpimarratuak, baina ez gutxi ahozkotasunari dagozkionak (33). Oinoharretan Jousse aipatzeak agertzen badigu zein izan zen autorearen informazio-iturria, azpimarratze hauek hori bera sendotzen digute, eta zehatzago agertzen ere bai, antropologo frantsesaren eragina, batez ere beste kulturen ikuspegi zabala eta zehatza edukitzean eta beste herrietako ahozkotasun-gertakariekin konparaketa egin ahal izatean.

Ahozkotasunaren ezaugarri nagusiak markatuz hasiko da: a) artifizio erritmikoa hizkeran; b) memoriaren garapena poetaren eta entzulearen baitan; c)

(29) Bai ‘Añamendi’ bildumakoak, 45. z., 1964; eta berdin Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 259. or. Izenburuak.

(30) Id.: Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 492-540. or.

(31) Id.: Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 260-261. or.

(32) Id., ibid., 307-311. or.

(33) M. JOUSSE: *Le Style oral rythmique et mnemotechnique chez les Verbo-moteurs*, ‘Archives de Philosophie’, Beauchesne, Paris, 1925. Gasteizko Seminarioko bibliotekan dago ale jakin garri hau, M. Lekuonak azpimarratua.



ahozko estiloko literatura lanean irudien eta ideien mugimendu azkarra eman ohi da; d) bat-bateko jardunak agintzen du testuen sorreran (34). Osagai haue-tako bakoitzaren agerpen teorikoa egingo digu Jousse-n liburua aipatuz, be-reziki aipamen biblikoak eta beste kulturetakoak egiteko denean, zitak espre-suki emanez (35).

Hurrengo atalean, ahozko literatura orokorra eta euskarazko herri-literatura ikertzen digu Manuel Lekuonak. Literaturako berriak ezezik, oralisten zientzi altxorra aipatzen du; eta ez gutxiago berak eginiko testu azterketak, fenome-noak xeheki deskribatuz. Hemen markatzen da ahozko estiloaren berezkota-suna, Manuel Lekuonaren ekarririk estimagarriena.

Ahozko literaturaren agerpenik adierazgarrienen artean, bertsolaritza az-tertzen digu lehenik. Lehenengo ikuspegia sozio-kulturatik egina da. Gero, pro-zeduren aldetik. Hurren, metrika alderdiak ukitzen dira. Ondoren historia ber-tsolaritzatik begiratuta. Esplikazio teorikotzat dauzka hauek egileak, azkenean, eranskin modura, propioki aukeratutako adibideak eskaintzen dituelarik. Su-posatzen du kultur estadio bat ongi finkatua, bertan parte hartzen dutenen ro-lak ongi ezagutzea herri-kultura berariaz aztertetik, prozedura herrikoien berri izatea, soporte psikologikoak menderatzea, testuak zehazki eta xehetasun guz-tietan deskribatzea, ikuspegi sozio-kulturaleraz jabetzea, prezeptibak eta arauak markatzea, fenomenoaren bilakabidea ezagutzea... Hitz batean, ahozkotasuna-ren inguruko kultura eta estetika ispilaraztea era zehatz eta sistematu batean.

Beste bi sail ezaugarrienetakoak, koplak zaharrak eta dekorazio olerkia, ez ditugu hemen errepikatuko, funtsean emanak daudenez Bergarako mintzaldian. Eta aipamen laburra eskaintzen die herri-antzerkiari eta erromantzei. Bazuen informaziorik puntu hauei buruz, batez ere kontapoesiari buruz, baina testuak jasotzetik urrats motxa eman zuen aipatu genero hauei buruzko agerpenean.

#### 4. Gerrondoko saiakerak (1955-1970)

Gerraosteko lanak ditu hauek, kultur asteren baterako landuak. Hogei urte bazen liburua argitaratu zela. Eta gerraren eraginez, ahozko literatura utzi eta historia lanetara lerratu zen, hala beharrez (36). Gehiago ez zion ikerketa ber-riarik ia eskaini ahozko literaturari. Eta ospatzekotan ziren aste kulturalen hel-buruei begira, lanen bat eskatzen bazioten, ahozkotasunetik egina, Manuel Le-kuonak gogoz erantzungo zuen. Baina saiakera otina hartzen zaie hori dela eta eginiko mintzaldiei.

(34) Id.: Idaz-Lan Guztiak, 1 t., 262-263. or.

(35) Gehienik bi gai hauetan egiten ditu aipamenok: ahozkotasunaren ezaugarri nagusiak markatzerakoan, eta bertsolaritzaz mintzatzerakoan. Id., ibid., 270-297 eta 297-333. or.

(36) J.M. LEKUONA: Manuel Lekuona Etxabeguren,...: 'Bidagurutzean' atala.

Lehendik dakienaz ari dela dirudi, ondo menderatzen duen gai bati buruz hain zuzen, ikuspegia ez bada beste zulaketarik gabe. Horregatik deitzen diogu saiakerak direla gerrondoko ekarri hauek. Gaiaren tratamentua gerraurreko lanen antzekoa dute, baina gehiago sartzan ditu osagai historiko eta estetiko-kulturalak gaien tratamentuan. Idazlan hauek dira:

“Problemas que plantea la Literatura oral vasca”, Deustuko Unibertsitatean, 1967an (37); “La psicología vasca a la luz de la poesía popular” I Semana de Antropología, 1979 (38); eta “Santa Clara’ren kanta zahar bat eta humorismoa” (1955) (39).

Azkeneko kantu honen atalburu-izenak aipatzea nahikoa da diogunaz jabetzeko. Hala dio epigrafeetan:

“Kopla gotikoak”; “Ondarroan”; “Ondarroan eta Oiartzunen”; “Gotikotasuna”; “Arkeologi apur”; “Biaterioak”; “Ironi apur”; “Metrika-apur”; “Aha-paldiak” (eta interesgarria hemen bihurkiaz dioena); “Egokitasun”, “Pinturatasun”, “Humoretasun” eta “Humoretasuna bertsoarietan”.

Garbi dago, saiakera honetan sartzan duela bere Lasarte eta Kalagurri ikaslanen ikuspegi historiko-estetikoa, eta ez hainbeste literatura-azterketa, bihurkiarena salbu (40).

Gauza jakina da, Manuel Lekuona berriro gai hauetaz arduratzen dela Oiartzuna, azken urteak igarotzera, etorritakoan. Nahiz eta zahartuta eginiko lanak izan, ez nuke esango baztertzekoak direnik. Zenbait ñabardura badute lan hauek, batez ere gerraurreko zenbait gai ugariago eta zuzenago formulatzerakoan. Baina metodologiaren aldetik ez dakarte hainbestearainoko aldaketarik, eta bere horretan uztea dela uste dugu gauzarik egokiena.

## II. ONDORIO METODOLOGIKOAK

Ikerketaren nondik norakoak ematen digu helduleku, hemen eta orain metodologiaren hari nagusiak finka eta heda ditzagun.

### 1. Metodo induktiboa datu lanketarako

1.1. Gasteizen irudikatzen da Manuel Lekuonaren ikerkuntz irudia eta maila, batez ere herri-literaturaren ikerketei dagozkienetan. Bokazioduna zen irakaskuntzarako, hoguei urtez irakatsi zuelarik ahozko literatura eta hizkuntza

(37) M. LEKUONA: Idaz-Lan Guztiak, I t., 541-567. or.

(38) Id., ibid., 569-597. or.

(39) Id., ibid., 9 t., 255-283. or.

(40) Id., ibid., 272-274. or.

Gasteizko Seminarioan. Landa-lanetara ohiturik zegoen, bai bakarka, bai taldean, batez ere ikasleekin batera. Honez gain, "Lyceum Cassiciacum" taldekoa zen, A. Pildain, J.M. Barandiaran eta L. Araviotorrerekin batera. Astean bitan biltzen ziren, bakoitzak orrialde batzuk aurkeztuz, norberak zituen zaletasun eta lantzen zituen alorren arabera. Eta esan daiteke, bilera eta taldelan hauek zirikusi ederra izan zutela Manuel Lekuonarengan, honen ikertzeko eran, idazkeran eta zereginari gogor eusteko gogoan (41).

1.2. "Eusko-Folklore Elkarte"-n partaide eta lankide ezezik, ikertzaile ere badenez lehenengo zenbakitik, Manuel Lekuonaren metodologia *Eusko-Folklore*-koa bera da funtsean. Ikerlari folklorista baten jarrera du, eta beronen ekintza berberak egiten ditu gaia aurkitzean, sailkatzean, deskribatzean, teoria bihurtzerakoan, kultur konparaketak egiterakoan.

1.3. Metodoa aplikatzeko zenbait urrats:

a) Zer bildu behar den: sinesteak, leiendak, ipuinak, alegiak, herri-sen-dakuntzaren errezetak, konjuruen formulak, kantuak, esakerak, asmakizunak, esaldi klitxetuak, atsotitzak, leku-izenak, errituak, ohiturak, umeen jolasketak... Eta ikerku behar dira, herriak bere sentipen jator eta artistikoak adierazteko dituen baliapideak.

b) Non bilatu behar dituen materiale folkloriko horiek: gizartearen azpi-azpian, gure Herriaren harpean, gaurko kulturaren eragin suntsitzailea oraindik oxta-oxta senti ohi den azpi hartan.

c) Nola bildu behar diren: kantuei buruz arau partikular hau ematen da: kantua, bere letra eta musikarekin bildu behar da bi hauek elkarren osagarri dira, eta elkarrekin behar dute joan.

d) Ikerketa sistematikoki osabetetzeko, galdekizunak eta egitasmoak prestatzen dira, galdera zerrendak dira, sistematikoki ordenatuak. J.M. Barandiaranek 1920an paratu zuen galde-sorta hau: "Literatura oral del pueblo vasco", besteak beste.

e) Goragoko ikuspegia, zientzibidea:

"El investigador que quiera realizar labor más elevada y obtener resultados verdaderamente científicos, ha de tender su mirada sobre el conjunto de las manifestaciones populares, ha de realizar estudios comparativos y familiarizarse con juicios y operaciones, de carácter más general si se quiere, pero siempre ajustadas a las realidades que estudia. Así logrará adquirir conocimientos precisos, a la vez que profundos, acerca de la literatura oral y gustos populares, descubrir leyes psicológicas y recomponer antiquísimas culturas de la humanidad" (42).

(41) L. BARANDIARAN IRIZAR: *Jose Miguel de Barandiaran, Patriarca de la Cultura Vasca*, 'Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones', San Sebastian, 1976, 107. or. eta hur.

(42) 'Anuario de Eusko-Folklore', 1 (1921), 20. or.

1.4. Testuen efektu guztiak xeheki deskribatuz, bai hitzen aldetik, bai hotsen aldetik, bai erritmoen aldetik, bai gorputz espresioen aldetik. Eta gainera, azterketa hori, zabala bezain zehatza, eskolaren eta "Sociedad de Eusko-Folklore"-ren barruan. Azterketa eta gogoetak ahalik eta gehien lantaldeen barruan eginak. Eskakizun baten barruan, eta bide berriak urratzen dituztenen kontzientzipean.

## 2. Metodo deduktiboa teorizazioan

Ikaslan konparatiboak egiteko eta hemengoa zabalagoko beste ikuspegi, irizpide eta lanetara jartzeko, laguntza paregabea izan zuen Manuel Lekuonak gorago aipatu dugun Marcel Jousse-n idazki nagusia, *Le style oral* deiturikoa, egilearen lehenengo lana eta idazlan handi bakarra (43).

Gaur egun, ahozko estiloa aurkitu duen autore bezala kontsideratzen da. Baina, behar bada, zehatzago litzateke, *gestuaren antropologia* aurkitu duena esatea, mimismoaren antropologia delarik ikerle honen lanen ezaugarri berezia (44). Eta gizonaren egitura siko-fisiologikoa oinarritzen denez ikerketa, herrialde guztietarako baliagarri gertatzen da dakarren ikuspegia. Unibertsalismo honi esker bildu ahal izan ditu idazlan honetan hainbat liburutako zitazioak, zitazioz osaturiko mosaiko bat bilakatzen delarik liburua.

Hortik du, hain zuzen, bere unibertsaltasuna eta bere aberastasuna.

Berrehundik gora dira Jousse-k bere helbururako iturri modura erabiltzen dituen autoreak, eta beste hainbeste eta gehiago autoreon liburuen tituluak (45). Bestalde, gure ikuspegiarako azpimarragarri da, era askotako medio etnikoak aipatzen direla Jousse-n liburuan, nortasun eta historia handikoak gainera: akantiak, afganoak, amerindioak, arabeak, berebereak, boskimanak, txinoak, eskimalak, etiopeak, malgatxeak, hego eslaboak, tuaregak, turkoak eta abar (46).

Informazio luze eta zehatza. Eta hau guztia biltzen du ahozko estiloaren oinarri antropologikoak finkatzeko eta ahozko estiloak dituen alderdi erritmi-koak, sozialak, indibidualak, fakultate mnemonikoak, prozedurak eta estilistika agerrarazteko. Hitz batean, ikerlari ospetsuen andana, hauen liburuen ikuspegi multidisziplinarra, medio etniko sonatuaren lekukotza, eta ahozkotasanaren ezaugarri preziagarrienak.

Manuel Lekuonari, ikerketan aurrera egiteko, antropologo frantsesaren ekarpen teorikoa sendogarri gertatzen zaio eta argigarri. Gasteizen emaniko le-

(43) *Le Style oral* liburuaren beste edizio bat da, 'Fondation Marcel Jousse' izenekoak argitaratua, 'Le Centurion', Paris, 1981, G. BARON: *Introduction*, 3. or.

(44) *Ibid.*

(45) *Ibid.*, 335-341 or. Aipaturiko autoreen zerrenda.

(46) *Ibid.*, 342 or.: Jousse-ren idazlanean aipatzen diren medio etnikoen taula.

hen urratsek konfirmazio bat izan zuten, euskal autoreak antzemanikoa ziurtatuz eta bermatuz. Eta argibidea ere izan zuen Manuelek, balio zientifikoak oinarritutako ikuspegi bat hemengo mundu garrantzizko bezain gaizki ulertuari aplikatzeko.

Norabide jakinagoa du frantsesak euskaldunak baino. Hark ahozko estiloa du helburu, zehazki hartua; eta honek ahozko literatura Euskal Herrian ematen den arabera. Hala ere, batak eta besteak ahozkotasanaren inguru biltzen dute beren ikuspegia.

Lekuonak teorizatu egiten du, ahozko literaturaren ezaugarriak markatze alde. Jousse-k, berriz, bestelako eginkizuna du begiurrean: ahozkoaren antropologiatik gestuen antropologia gorpuztea. Hala ere, informazio ezinhobeak dakarkio Lekuonari, bere ahozko literaturaren lau ezaugarri nagusiak finkatzeko, agertzeko eta konparatzeko. Alderdi teorikoak jasotzen ditu Pariseko irakaslearengandik, eta konprobaketak egiteko behar diren berriak, bai pedagogiatik, bai psikologiatik, kritika literariotik, estilologiatik, mintzairaren antropologiatik, historiatic... Oinarri zabalak oiartzuar autorearentzat.

Aipamen berezia egin behar diogu bertsoaritzari, agertuz zer den Lekuonak aukeratzen duena gai honen osagarri antropologo frantsesaren liburutik. Ahozko literaturaz orokorki ari denean, eta preseski bertsoaritzaz ari denean ere, *Le style oral* liburuak dakarkio informazio zabala, klasikoetatik, Bibliatik, aztertuta dauden medio etnikoetatik, kanpokoaz hemengoa argituz, eta gertakaria berberak hemen ere ematen direla egiaztatuz.

Metodo deduktiboa erabiliz, teorizazio mailako alderdi zabalagoak finkatzeko, era zientifikoan finkatu ere, Jousse-ren liburua iturri zehatza bezain aberatsa gertatu da oiartzuarentzat. Ahozko estiloaren teoriak ematen dio bide medio etniko desberdinetan eta gurean ere ematen dena elkarrekin konparatzeko, ahozkotasanaren ezaugarriak markatzeko, bertsoaritzaren kontestu berarizkoa bereizteko eta balioztatzeke. Dedukzio lan zehatza eta aberatsa egiten digu Lekuonak, Jousse-ren teorian apio hartuz.

### 3. Metodo induktibo-deduktiboa interpretazioan

Gerra zibilak bidagurutz batean jarri zuen Manuel Lekuona. Ezkutuan eta erbestealdian, hizkuntza eta literatura utzi eta historiako gaietan murgildu beharra etorri zitzaioan. Eta etno-historiako ikerbidea hartzen du, eliz historia lokalcan bereziki sartuz eta aurreratuz.

Idatzizko iturriez baliatzen da, artxibo lanetan hogeitaz aritu zenez. Baina lagungarri joko ditu dokumentuek aipatzen ez dituzten hainbat gauza garrantzizko, hala nola komunikazioak, erakundeak, eraikuntza lokalak, salerosketak, industria, demografia, hizkuntza eta, zer esanik ez, ahozko tradizioa.

Etno-historian Manuel Lekuonak beti egingo du ahozko tradizioaren aipamena. Baina beti etno-historiaren argibiderako. Eta herri-poesiaz edo mintzo denean, ez du gaztetako zorrotzasunik indukziorako, ez eta teorizazio-lanik ere, prinzipio orokorretan zerbait berria esateko. Buruz dakienetik ari da, saiakera eittea dutelarik garai honetako lanok. Eta saiakera hauen helburua ez da literatura markatzea, baizik eta da etno-historiaren alderdiren bat esenplifikatzea, hala nola sikologia, etnografia, arte plastikoak, ahozko tradizioa.

Calahorrako azken urteetan idatzi zuen 'Santa Klararen kanta zahar bat eta humorismoa'. Badute kantu hauek indukziotik, azterketa zehatza eginez eta konstatazio jakingarriak aipatuz. Gutxiena duzu ordea, hau. Gehiena arte plastikoetatik hartzen du eta gutxiago etnografiatik. Autoreak landurik daukan etno-historiatik baliabideak eskaintzen ditu testua girotzeko, kontestu barruan jartzeko, interpretazio artistiko egokia proposatzeko. Eta poematxoa ikusten da ahaide dituen lauki eta dekorazioekin bateratuz eta erkatuz. Zientzi arloari baino gehiago begiratzen zaio saiakerari.

\* \* \*

Arrakastatsua izan bada Manuel Lekuonak ahozko literaturaz idatzirikoa, erabili zuen metodologiak badu zerikusi arrakasta horretan. Bereziki aberatsa zen orduko campus-lana, bai Lekuonak berak eginga, bai Azkuek, Donostiak, Nehor eta Dufok eginikoa. Begi zolia zuen autoreak, eta 'Eusko-Folklore'-ko kide aipatuenetakoa izan zen, taldeko metodologia hain zehazki bereganatu zuena. Eta teorizaziorako formulatzaile trebea ere agertu zen, Euskal Herriko ahozkotasanari tratamendu aurreratuena emanez garaiko ikerlanetan. Eta beti, hemengo etnografia eta historia hain ongi ezagutzetik zetorkion trebezia ahozko estiloaren interpretaziorako.

Hor datzala esan daiteke, Manuel Lekuona euskal oralisten aintzindari izateko arrazoia.